

Liburutegien etorkizunaz arituko da bihar Eppo van Nispen aditua Donostiako Tabakaleran

DONOSTIA, 12 (EUROPA PRESS) Eppo van Nispen tot Sevenaer adituak 'Liburutegien etorkizuna' izenburuko hitzaldia eskainiko du bihar Donostiako Tabakaleran kultur zentroan. Ekitaldia arratsaldeko 19:30etan hasiko da eta zabalik egongo da gai honekiko interesa duten guztientzat. Halaber, hitzaldi honekin, Tabakalerak eta Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak elkarlanean antolatutako 'Informazioaren kudeatzailea eta bitartekaria' ikastaroa ofizialki hasiko da. Seguir leyendo el artículo

Zentro donostiarreko iturriek jakinarazi dutenez, hitzaldiaren izenburuak argi dioten bezala, informazioaren teknologiak, kudeaketa eta erabiltzaileen ohiturak etengabe aldatzen ari diren garaiotan, liburutegietan gertatutako eraldaketez eta hartu beharreko norabideaz jardungo du aditu herberehetarra.

'Esperientzia nahikoa' dauka alor horretan Van Nispenek. Telebistaren industrian urte luzeetako ibilbide arrakastatsua burutu du (lehenengoetarikoa izan zen hedabide horretan baliabide interaktiboak txertatzen), baina informazioaren teknologia berriek komunikabideetan eta informazioaren kudeaketan iraultza ekarriko zutelako konbentzimendu osoarekin, bere esparrutik aldendu eta liburutegien munduan murgiltzea erabaki zuen.

Herbeheretako Delft hirian, Amsterdametik gertu, DOK Library Concept Center (www.dok.info) izeneko proiektua jarri zuen abian 2006an. DOK-en helburua 'munduko liburutegi modernoena' sortzea zen, eta gaur ere bide horretan dihardute lanean buru-belarri. 2008an nazioarteko aditu talde batek berrikuntzari dagokionez munduko lehenengo liburutegia izendatu zuen DOK, eta orain arteko ibilbide laburrean, nazioartean sonatuak diren hainbat sari eta aipamen jaso ditu liburutegien alorrean egiten ari den lan berritzaileagatik.

Tabakalerako arduradunen arabera, Eppo van Nispen-ek eskainiko duen hitzaldia 'interesgarria eta argigarria' izango da liburutegien munduan lan egiten duen ororentzat eta liburutegien etorkizunari buruzko hausnarketa premiazko jotzen dutenentzat. 'Modu atsegin, bizi eta dibertigarrian', etorkizunarekin lotutako erronkei aurre egiteko ideia eta proposamen berritzaileak aurkeztuko ditu, betiere bere goiburuari eutsiz: 'infinituraino eta harago'.

Hitzaldia irekia eta doakoa izango da, eta Tabakalerak eta Asmoz Fundazioak antolatutako 'Informazioaren kudeatzailea eta bitartekaria' ikastaroko partaideez gain, bertara gonbidatuta dago liburutegien etorkizunean eta informazioaren kudeaketan interesa duen guztia.

